



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

79. INFORMAZIO BULETINA

2013ko Ekaina



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **Erkidegorako Hainbat Urterako Finantza Esparruari buruzko akordio politikoa 2014-2020 aldirako**

2013ko ekainaren 28an, Ordezkarri Iraunkorren Batzordeak Kontseiluaren izenean onartu zuen 2014-2020 aldirako Europar Batasuneko Hainbat Urterako Finantza Esparrua ezartzen duen Erregelamendu-proiektuari buruz Europako Parlamentuarekin adostutako akordioa.

Horrela, Europako Kontseiluak, Batzordeak eta Parlamentuak datozen urteetarako Europako Aurrekontu Esparruari buruzko akordioa lortu dute, hainbat hilabeteko eztabaidaren ondoren.

Lortu duten akordioaren arabera, ez da handituko hasieran itundutako zifra Euroganberak ez zela nahikoa adierazi arren. Hala ere, ordainetan, Parlamentuak berrikuspenari eta malgutasunari lotutako klausula bat txertatzea lortu du, urte batean gastatu gabe gelditzen den dirua hurrengo gastatu ahal izateko. Horrez gain, Hainbat Urterako Finantza Esparrua epe ertainean nahitaez berrikusi beharra onartu dute eta 2016an berrikusiko dute. Gainera, 2013ko aurrekontuari egin beharreko aldaketei buruz ere lortu dute akordioa.

Akordio hori lortuta, Euroganberak azaldu du prest dagoela udazken hasieran aurrekontu-esparrua eta erakundeen arteko akordio berria bozkatzera aurkezteko.

Informazio gehiago:

<http://www.consilium.europa.eu/special-reports/mff>



> Europak estatu-kideei eta eskualdeei eskatu die eman ditzatela urratsak Egitura Funtsen programen plangintzan

Johannes Hahn Eskualde Politikaren Europako batzordekideak estatu-kideei eta eskualdeei eskatu die egin dezatela berehala 2014-2020rako Europar Batasuneko Egitura Funtsen programen plangintza. Europako Parlamentuko Eskualde Garapeneko batzordekideek eskualde-politika errotik aldatzea babesten duten hainbat txosten egin ondoren egin du Batzordekideak deialdia. Txosten horiek erakusten dute Europako Batzordearen, Europako Parlamentuaren eta estatu-kideen artean eskualde-politikako programen kudeaketa eraginkorragoa izan dadin aldaketa sakonak egiteari buruzko negoziazioen emaitza.

Zehatzago esanda, Eskualde Garapeneko Batzordeak lortutako aurreakordioak eskualde-politikaren aldaketa multzoaren zatirik handiena biltzen du. Erabakitzeke dauden gaiak eztabaidatzen jarraituko dute; hala nola eraginkortasuna zaintzea eta baldintzapekotasun makroekonomikoa. Dena den, babestu dituzten neurriak, batzordekidearen iritziz, oinarri ona dira programazioa lantzen jarraitzeko.

Horregatik eskatu diete estatu kideei eta eskualdeei eman ditzatela urratsak Egitura Funtsen programen plangintzan, kide diren estatu batzuetan elkartzeko akordioen proiektuak prest badituzte ere. Alde horretatik, Batzordeak espero du urte amaierarako denak amaituta egongo direla eta 2014 hasieran programa guztiari buruzko akordioa lortuta egongo dela, hazkuntzari eta enpleguari funtsak ahalik eta azkarren bideratzeko.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-13-670_es.htm



> Kroazia, Europar Batasuneko estatu-kide berria

Urriaren 1etik, Europar Batasuneko eskubide osoko hogeita zortzigarren (28.) estatu-kidea da Kroazia.

2003ko otsailean egin zuen Kroaziak Europar Batasunean sartzeko eskaera eta Batasunean sartzeko herrialde-hautagai izatearen baieztapena 2004ko martxoan lortu zuen. Bi aldeen arteko atxikitze-negoiazioak 2005eko urrian hasi ziren formalki eta ez ziren 2011ko ekainera arte amaitu.

Kroaziak 4,4 milioi biztanle ditu; km²-ko 77,8 biztanleko dentsitatea. EU27-k, berriz, 116,8 biztanle ditu km²-ko. Per capita errenta % 2 jaitsi zaio azken urte honetan eta EU27-ren batez bestekoaren % 61era iritsi da. 2013ko apirilean, % 18,1eko langabezia-tasa zuen (EB27-k % 11,1ekoa). Gazteen langabezia (25 urtetik beherakoa) % 51,8koa du eta EU27-rena, aldiz, % 23,5-ekoa da.

12 eurodiputatu izango ditu Kroaziak Europako Parlamentuan.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/es/treaties/new-2-46.htm>



KOHESIO-POLITIKA

> **Europa krisitik ateratzea: Europako Batzordearen gomendio berriak estatu kideentzat**

Europako Batzordeak gomendio berriak argitaratu ditu estatu kideentzat. Europa krisitik ateratzea eta hazkundearen oinarriak sendotzea da gomendioen helburua. Batzordeak argitaratutako gomendio berri horiek herrialde bakoitzeko egoera aztertzeke eginiko azterketa sakonetan oinarrituta daude eta 2013-2014an hazkundera sustatzeko, lehiakortasuna hobetzeko eta lanpostuak sortzeko duten ahalmena sustatzeko moduei buruzko jarraibideak ematen dizkiete gobernuei.

Batzordearen analisiak erakusten du Batasunaren berregokitzea abian dela. Estatu kide gehienetan urratsak ematen ari dira aurrekontuak onbideratzeko eta erreformak aplikatzen ere ari dira lehiakortasuna hobetzeko. Hala ere, ahalegin horien eritimoa eta eragina aldakorra da. Estatu kide batzuek bizkortu edo bizkorrago aplikatu behar dituzte erreformak.

Gomendio-sorta honek osatu du koordinazio politikorako Europako hirugarren sei hilekoa eta gomendio horietan, Batzordeak ere hartu ditu gehiegizko defizitaren prozeduraren esparruko hainbat erabaki.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/europe2020/pdf/nd/2013eccomm_en.pdf

http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-13-463_en.htm

> **Europako Batzordeak ildo berriak ezarri ditu egoera zailenean dauden eskualdeei laguntzeko**

Europako Batzordeak ildo berriak ezarri ditu estatu kideek enpresei inbertsioak egiteko laguntzak emateko moduari buruz. Laguntza horiek 2014-2020 aldian egoera zailenean dauden Europako eskualdeei laguntzeko dira. Aipatutako ildo horietan oinarrituta, estatu kideek eskualdeko laguntzetarako mapak prestatu ahal izango dituzte enpresek inbertsioetarako laguntzak zein inguru geografikotan eta zer kopurutan jaso ditzaketen identifikatzeko.

Ildo berriak estatuetako laguntzen kontrola modernizatzeko estrategia zabalago baten parte dira. Estrategiaren helburua merkatu bakarraren hazkundera sustatzea da, laguntzeko neurri eraginkorragoak sustatuz eta Batzordearen kontrola lehiari gehien eragiten dioten kasuetara bideratuz.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2013:209:0001:0045:ES:PDF>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



> **Argitaratu dute kohesio ekonomiko, sozial eta lurralde-kohesioaren egoerari buruzko 8. txostena. “Krisiaren eskualde eta hirietako dimentsioa” du izenburua**

Kohesiorako programei buruz laster izango diren negoziazioak babesteko, Europako Batzardeak beste txosten bat argitaratu du, zortzigarrena oraingoa, kohesio ekonomiko, sozial eta lurralde-kohesioaren egoerari buruz. “Krisiaren eskualde eta hirietako dimentsioa” izenburupean, krisiak kohesiorako programa berrien testuinguruan eta lehentasunetan eragingo dituen aldaketa nagusiak azaltzea da xedea.

Txostenak herrialde mailan egindako aurrerapen nagusien ikuspegi orokorra eskaintzen du eta ondoren, krisiak eskualdeetan eta hirietan duen eragina aztertzen du; baita gero eta handiagoak diren desberdintasunak ere. Azkenik, ingurune politiko berriak etorkizuneko kohesiorako programei nola eragingo dien laburtzen du eta gaikako kontzentrazio sendo bat egiteko beharra nabarmentzen du.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0463:FIN:ES:PDF>

> **Europak indartu egin du zergak saihestearen aurkako borroka**

Europako Batzardeak Batasuneko zerga-administrazioen artean informazioa automatikoki trukatzeko aplikazio-eremua zabaltzea proposatu du zergak saihestearen aurkako borroka indartzeko.

Proposamen honen arabera, dibidenduak, kapitalen gainbalioak eta finantza-sarreraren eta kontuen saldoen gainerako moduak EBN informazioa automatikoki trukatzeko den kategorien zerrendan sartu behar lirateke. Horrela, informazioa automatikoki trukatzeko duen munduko sistema osoena osatzeko urratsak ematen jarraitu nahi du Batzardeak.

EBN informazioa automatikoki trukatzeko lehendik ezarrita dauden xedapenekin (EBN aurreztearen zerga-sistemari buruzko Direktiba eta Administrazioaren lankidetzari buruzko Direktiba) batera, proposamen honen bidez, Atzerriko Kontuen Zerga Betebeharrak Betetzeko Legearen (FATCA) harira, estatu-kideek AEBrekin partekatutako konpromisoa hartutako informazio kopuru bera partekatuko lukete elkarren artean.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/taxation_customs/taxation/tax_fraud_evasion/index_en.htm

http://ec.europa.eu/taxation_customs/common/publications/com_reports/taxation/index_en.htm

http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-12-949_en.htm?locale=EN



> 2013ko Ekaina

> **Lantegi Batuak, Europako Parlamentuak hautatutako gizarte-berrikuntzarako jardunbide egokia**

Maiatzaren amaieran, “*Social Innovation-Priority for a European Agenda*” (Gizarte Berrikuntza-Europako Agendaren Lehentasuna) biltzarra amaitu zen. Horren harira, Europako enpresa sozialek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek abian jarritako hainbat jardunbide egoki eta arazo sozialei emandako erantzun berritzaile batzuk bildu ditu Europako Parlamentuak. Horien bidez, Europako ekonomia sozialaren indar berritzaileari buruzko informazioa bildu eta indar hori erakutsi nahi du.

Europako 29 herrialdeetako erakundeek aurkeztutako 50 jardunbide egokien artean, Lantegi Batuak da Estatuak ordezkatzeko duten hiru jardunbide egokietatik bat, eta hura da, gainera, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako lana sortzera bideratutako bakarra.

Txostenak dioten gisan, Lantegi Batuak entitatean 2.300 pertsonak egiten dute lan eta horietatik % 65ek ezgaitasun intelektuala dute, % 29k ezgaitasun fisiko edo sensoriala eta % 6 buruko gaixotasunak. Entitateak prestakuntza eta kalitatezko lana eskaintzen die aipatutako pertsona horiek erabat gizarteratzen direla ziurtatzeko.

Informazio gehiago

http://www.lantegi.com/wp-content/uploads/downloads/2013/06/BOOKLET_Good_Practices_Social_Innovation.pdf



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Argitaratu dute EBko Merkatu Bakarraren jarraibideen taula

Europako Merkatu Bakarraren jarraibideen taulak biltzen ditu gobernantzarako hamahiru tresnei buruzko txosten osoak; horien artean dira EBko direktiben transposizioa ondo gauzatzeko kontrola, arau-hausteen prozeduren analisia, administrazioen eta hainbat informazio-elkarteren elkarlanerako sareak eta arazoak konpontzea.

Tresnaren helburua Europako Merkatu Bakarraren benetako egoeraren ikuspegi orokorra eskaintzea da. Horretarako, estatu kideek izandako emaitzak bildu eta islatzen ditu, baina herritarrek eta enpresek EBk ematen dizkien eskubideak baliatzeko dituzten zailtasunen adibideak ere azaltzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/internal_market/scoreboard/

> Europa kontratazio publiko elektronikoa osoa izateko urratsak ematen ari da

Europako Batzardeak Direktiba-proiektu bat aurkeztu du kontratazio publikoan fakturazio elektronikoa erabiltzeari buruz. Horrekin batera, Komunikazio bat ere aurkeztu du eta hor adierazi du kontratazio publikoaren prozesua erabat digitalizatzeko duen ikuspegia: «kontratazio publiko elektronikoa osoa» izenekoa.

Fakturazio elektronikoa urrats garrantzitsua da Europan administrazio elektronikoa izatera iristeko; hori da Agenda Digitalaren lehentasunetako bat eta Europa 2020 Estrategiaren ekimen adierazgarria. Etorkizunean ekonomiarik eta ingurumenari onurak ekartzeko potentzial handia du.

Batzordeak fakturazio elektronikoa egiteko arau europar bat ezartzea proposatu du eta arau horrek batez ere nazionalak diren fakturazio elektronikorako sistemen elkarrenginkortasuna hobetzea espero da. Segurtasun-falta juridikoa, gehiegizko konplexutasuna eta operadore ekonomikoentzako operazioen kostu gehigarriak ere ezabatu nahi dira; izan ere, orain, operadore horiek estatu kideetan faktura elektronikoa ezberdinak erabili behar izaten dituzte.

Batzordeak fakturazio elektronikoa buruz egindako proposamena Ministro Kontseiluari bidaliko zaio eta Europako Parlamentura igorriko da han onar dezaten.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/internal_market/payments/einvoicing/index_en.htm

http://ec.europa.eu/internal_market/publicprocurement/index_en.htm



> Eusko Jaurlaritzak *Basque Country* aurkeztu du, nazioartekotzearen aldeko euskal estrategia berria

Eusko Jaurlaritzak *Basque Country* estrategia aurkeztu du, Euskadik nazioartekotzearen alde egin duen apustu estrategiko berria. Helburua ekonomia eta enplegua suspertzea da, nazioartekotzearen bidez eta berrikuntza, industria eta inbertsioa sustatuta.

Eusko Jaurlaritzaren estrategia berriak lau jarduera-ardatz ditu: Ekonomia eta Industria; Kultura eta Hezkuntza; Turismoa eta Kanpoko Ekintzak eta hiru helburu nagusi ditu: 1) Euskadi merkatu globalean kokatzea eta kalitatezko herrialde baten marka eta lehiakortasuna hobetzen lagunduko duen eredu ekonomiko eta enpresa-eredu bat eskaintzea; 2) euskal ekonomia gehiago irekitzea eta atzerriko inbertsioak erakartzea eta sendotzea; eta 3) Euskadi balio erantsi handiko produktuen erreferentzia gisa indartzea.

Estrategia honen jarduera-eremuak Europan kokatuko dira Europar Batasunean hartzen diren erabakietan ahotsa izateko eta Lehiakortasunaren eta Ekonomia eta Finantzen Europako kontseiluetan parte hartzeko. Horrez gain, Euskadirekin osagarriak diren herrialdeak eta tokiak identifikatu nahi dira. Helburua akordio egonkorra lortzeko bazkide-sarea sortzea eta kanpoan bizi diren Euskal Herritarren ondorengoek eta atzerrira joan beharra izan arren Euskadirekiko loturari eutsi nahi diotenen osatutako sarea ere sortu nahi da.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.net/es/news/15165-estrategia-basque-country-una-apuesta-abierta-por-internalizacion>



> 2013ko Ekaina

> Europako Batzordeak saria eman dio Euskadiri zahartzaro aktiboa eta osasuntsua berrikuntzan oinarrituta modu integralean lantzeagatik

Europako Batzordeak saria eman dio Euskadiri –3 izar Reference Sites– zahartzaro aktiboa eta osasuntsua berrikuntzan oinarrituta modu integralean lantzeko egin duen lan eredugarriagatik. Aurtengo edizioan izandako puntuazio altuena (3 izar) eskuratu du Euskadik. Sari hauek beste erakunde eta administrazio batzuentzako erreferentzia diren “bikaintasun-ereduak” identifikatzen dituzte.

European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing izeneko Europako programaren barruan etorri da aitortpena. Europa 2020 Estrategiaren esparruan garatutako ekimen pilotua da programa hori eta 2020rako bizitza osasuntsuaren itxaropena bi urte luzatzea da helburua. Reference Site (Erreferentzia Arloak, euskaraz) horiek saritu egiten dituzte zahartze aktiboa eta osasuntsua berrikuntzatik abiatuta lantzeko jardunbide egokiak erabili izanagatik nabarmendu eta emaitza onak eta ekintzen arteko sinergiak lortu dituzten eskualde, hiri edo ospitaleen partzuergoak edo taldeak.

54 partaideen artean zen Euskadiren hautagaitzak arlo hauetako ekintzak biltzen zituen: Prebentzio, Monitorizazio eta Diagnostiko Goiztiarra; Zaintzak eta Arreta; Zahartze Aktiboa eta Bizimodu Independentea; eta Politiken Horizontaltasuna.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/avservices/video/player.cfm?ref=1080059>

<http://www.irekia.euskadi.net/es/news/15272-comision-europea-premia-euskadi-por-labor-ejemplar-abordaje-integral-del-envejecimiento-activo-saludable-basado-innovacion>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Ekaina

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> EBren finantzaketari buruzko Atari Bakarra: Egitura Funtzak enpresa ertain eta txikientzat

Europako Batzordeak enpresa txiki eta ertainentzako EBren finantzaketari buruzko Atari Bakarrean txertatu du Egitura Funtsetarako erreferentzia; hau da Eskualde Garapeneko Europako Funtza (EGEF) eta Europako Gizarte Funtza (EGF). Hortaz, Europa osoko enpresek errazago eskuratu ahal izango dituzte finantzaketarako eskuragarri dauden baliabide eta tresna guztiak.

EBren finantzaketari buruzko Atari Bakarrak informazio erabilgarri, oso eta eguneratua eskaintzen du ekintzaileek eta enpresa ertain eta txikiek EBren hainbat programetatik datozen finantzaketarako 100.000 milioi eurotik gora eskuratzeko.

Egitura Funtzak txertatuta, bikoiztu egin da atxikitako banku eta funtsen kopurua eta, horri esker, enpresa ertain eta txikiak berme, mailegu eta arrisku-kapitalaren bidez finantzatzeko informazio garrantzitsuen iturria sendotu da.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/youreurope/business/finance-support/access-to-finance/index_es.htm

> Batasunak ongi-etorria egin dio Kroaziari (Panorama aldizkaria, 2013ko uda)

Europako Batzordearen Eskualde Politikaren Zuzendaritzak Panorama aldizkariaren ale berria argitaratu du eta Kroazia EBra atxiki izana da gai nagusia. Aldizkariaren edukietan, atxikitze-prozesuaren ikuspegi orokorra dago azalduta, Kroaziako industria nagusien aurkezpena, proiektu arrakastatsuen adibideak eta Branko Grčić presidenteorde EBko Eskualde Garapenaren eta Funtsen ministroari egindako elkarrizketa.

Europako Batzordeak eta agintari nazionalak kohesio-politika ondo erabili dela bermatzeko eginiko ikuskapen-prozesu osoari buruzko artikulua irakur daitezke, besteak beste. Kohesio-politikaren Txosten Estrategikoari buruzko ikuspegi orokorra, urrian egingo duten atak zabaltzeko jardunaldiaren aurkezpena eta estatuko laguntzei buruzko araudien azterketari buruzko artikulua bat ere irakur daitezke.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag46/mag46_en.pdf



> **Ekonomiarentzako kreditua handitzea (Europako Batzordea eta EIB)**

Europako Batzordeak eta Europako Inbertsio Bankuak (EIB) elkarrekin eginiko txostena. Enpresa ertain eta txikien finantzaketa indartzeko modu onena zein den aztertu dute. Baliabide gehiago mugiarazteko eta ekonomian arriskuak iraunkortasunez birbanatzeko titulizazio-merkatua berpiztea proposatu dute.

Orain dugun sistematik abiatuta egin dute txostena eta ditugun baliabideak benetako ekonomiara bideratzen direla bermatzeko bideak proposatzen ditu. EBko funtsak eta EIBren baliabideak batzeak EIBren kredituen eragina indartuko du gehien behar den tokietan.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/europe2020/pdf/eib_es.pdf

> **Quality of Life at the sub-national level: an operational example for the EU (JRC y Comisión Europea)**

Nazioz azpiko mailako bizi-kalitatearen bi alderdi garrantzitsu aztertu dituen txostena: bizi-maila eta osasuna.

Emaitzek erakusten dute bizi-kalitatean alde handiak daudela eskualde eta herrialde batetik bestera. Análisiak nabarmendu du, halaber, eskualde gehienetan osasun arloko adierazle objektiboak eta subjektiboak bat datozela, baina beste batzuetan, adierazle subjektiboak adierazle objektiboak baino askoz hobekak edo okerragoak direla. Txostenak askotariko baliabideetatik ateratako informazioa uztartzen du. Errentari eta Bizi-baldintzei buruzko Erkidegoko Inkesta, etxeei buruzko inkesta britainiarra (USS) eta inkesta alemaniarra (SOEP), Eurobarometroa eta Eurostat dira, besteak beste, informazioa lortzeko erabilitako baliabideak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/6th_report/2013_quality_of_life_report.pdf